



ERRENTERIAKO ERRETIRATUAK ZIZTU BIZIAN

Edurne Martiarena Arana

Errenteriako jubilatuen elkarteetan izugarritzko martxa izan da aurtengo honetan. Iazko urriaren erdialdean hasi zituzten aktibitateak, dinamizatzailerik biren laguntza zutela antolamendu lanetan eta baita bolondresena ere zenbait aktibitate burutzeko.

Horrelaxe, ondoren azalduko dizkizuegu gure herriko edadetuek bururiko aktibitateen laburpen txiki bat.

Urte osoan egin dituzten aktibitateetan gimasia eta masaiak teknikak izan dute arrakastarik handien elkarrekin gehinetan, izan ere aktibitate hauek bildu baitute jende multzo oparoena.

Eskulanetan berriz, Errusiako porzela, saskigintza, marketeria eta pintura izan ditugu aurtengoan landutakoak.

Aipatzeak ere merezi du elkarrekin bitan izandako kafe tertuliak, aktibitate honen bitartez jendea kultura mudura hurbiltzeaz gainera, entzumen teknika eta errespetua landu baitira.

Epe motzeko aktibitateen artean, nobedade gisa sukaldaritza ikastaroa izan dugu, jende mordoskak parte hartu du bertan eta horien artean gizonen presentzia garrantzitsua izan da.

Ikastaro honetan ere hitzaldiak izan dira erretiratuaren elkarteetan, eta batenbat azpimarratzeagatik, testamenduarena eta euroarena aitatu ditugu, izan ere jendetza ugari erakarri baitzuten beroiek.

Bestalde, mendizaletasuna Errenteriako jubilatuen artean indarrean dagoela baieztatu dute hilabeteetan behin egindako irteerek. Aurtengo honetan hautatutako lekuak, "Faro de la Plata, Pagoetako parke naturala, Urkuluko ingurunea", e.a. izan dira besteak beste.





Bukatzeko, aipamen berezia me-rezi dute klub guztiek amankomunean egin dituzten jaialdiek, horietako batzuk aipatze arren, Eguberritako jaia, lhauteriako jaia, San Markos eguna eta Xenpelar aretoan egin ohi den erakusketa azpimarratuko ditugu.

¡¡¡AUPA JUBILATUAK ETA SEGI BERE HORRETAN HURRENGO URTEAN!!!

